

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

#### **8/2020 Mozioa, urtarrilaren 22koa, Miñoien kidegoko patruila berdeari eman behar zion laguntzari eta bultzadari buruzkoa**

Arabako Batzar Nagusiek, 2020ko urtarrilaren 22an egindako osoko bilkuran, ondorengo mozioa onetsi zuten:

8/2020 Mozioa, urtarrilaren 22koa, Miñoien kidegoko patruila berdeari eman behar zion laguntzari eta bultzadari buruzkoa.

1. Arabako Batzar Nagusiek Miñoien Atala osatzea eskatzen diote Eusko Jaurlaritzari, Ertzaintzaren gainerako unitateak osatzen diren proportzio berean, gaur egun Lanpostuen Zerrendan aurreikusten diren ehun langileraino. Horrela, Miñoien Atalak jardun-eremu bakoitzean esleituta dituen zereginak egiten jarraituko duela ziurtatuko da.

2. Arabako Batzar Nagusiek proposatzen dute Miñoien Atalak lurraldearen landa-eremuan duen presentzia indartzea, ingurumenaren zaintza barne.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urtarrilaren 22a

*Presidentea*

**PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA**